



2005eko irailak 13 asteartea
173 Zenbakia

Martes 13 de septiembre de 2005
Número 173

LABURPENA — SUMARIO

| | <u>Orrialdea</u> | | <u>Página</u> | | |
|---|---|--------|---------------|--|--------|
| 4 | Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa..... | 18.241 | 4 | Administración del T.H. de Gipuzkoa..... | 18.241 |

4

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

4

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA

Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia

*Olaberriko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena.
(GHI-126/03-P05).*

Diputatuen Kontseiluak, 2005eko maiatzaren 17ko batzaraldian, erabaki bat hartu zuen eta horren edukina ematen da ondoren argitara:

Udalak, tramitatu ondoren, Olaberriko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena –Alde zaharreko eremuei dagokien dokumentu berridatzi– izeneko espedientea aurkeztu du, Foru Aldundiak behin betiko onar dezan.

Diputatuen Kontseiluak 2004ko azaroaren 30eko bileran erabaki zuen, lehendabizi, Olaberriko Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina behin betikoz onartzea, zenbait baldintza betetzeko eta akats batzuk zuzentzeko agindua emanez, eta, bigarren, 2003ko abenduaren 9ko aurreko erabakian ezarritako behin betiko onarpenaren etenaldiari eustea, Herriguneak duen lur eremu hiritarraren sailkapenari, 1.1, 1.2, 1.4 eta 1.6 hirigintzako jarduketa unitateei, eta Herriguneko parkeari eranstean zaizkion guneei dagokienez; bestalde, erabaki horretan adierazi zen bertan aipatutako akatsak zuzentzen zituen dokumentazioa aurkeztu behar zuela Olaberriko Udalak, onartutako dokumentua diligentziatu eta argitaratu ahal izateko.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACION Y PROMOCION TERRITORIAL

Dirección General de Ordenación Territorial

Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Olaberria. (GHI-126/03-P05).

El Consejo de Diputados en sesión de 17 de mayo de 2005, adoptó el acuerdo cuyo contenido a continuación se publica:

Concluida la tramitación municipal, se presenta para su aprobación definitiva por esta Diputación Foral el expediente de «Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Olaberria» –Documento reformulado correspondiente a los ámbitos del Casco–.

Por este Consejo de Diputados en sesión celebrada el 30 de noviembre de 2004 se acordó, en primer término, aprobar definitivamente el Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Olaberria, con condiciones y deficiencias a subsanar; y, por otra parte, se acordó mantener la suspensión de la aprobación definitiva ya establecida en el acuerdo anterior de 9 de diciembre de 2003 en lo que se refiere a la clasificación como suelo urbano residencial del núcleo de Herrigune, lo que afectaba a las Unidades de Ejecución U.A.U. 1.1, U.A.U. 1.2, U.A.U. 1.4 y U.A.U. 1.6 y a los espacios que se incorporan al parque de Herrigune; por lo demás, en este acuerdo se establecía que por el Ayuntamiento de Olaberria, se debería aportar documentación que subsanasen las deficiencias señaladas en dicho acuerdo a efectos de diligenciación y publicación del documento aprobado.

Orain aurkeztu den dokumentuak aipatu etenaldi erabakian ezarritako baldintzak betetzea du helburu. Jendaurrean erakutsi ondoren, 2005eko martxoaren 29ko Udal Batzarrak dokumentua onartu zuen, aurkeztutako alegazioa onartzeak eta zeuden akatsak konpontzeak eragindako aldaketak ezarrita. Ondorioz, eguneratutako dokumentua egin zen 2005eko martxoan.

Dokumentuaren edukia aztertu ondoren ikusi da hiru eremutan banatu dela Herrigune 1. Area, etxegunerako lur eremu hiritarraren sailkapena zuena: Alde batetik, lur eremu hiritarrek Herrigune Zaharra 1. Area, finkatutako gunea eta 1.3, 1.5 eta 1.7 hirigintzako jarduketa unitateak bereganatu dituen; eta, bestetik, etxegunerako lur eremu hiritarrezinako bi alor berri, bata, Herrigune Berri 44-Area, 33 etxebizitza berriekin, 1.1, 1.2 eta 1.6 unitateak eta parkearen zati bat hartzen dituen, eta, bestea, Iturtxo 47-Area, 12 etxebizitza berriekin, 1. 4 unitatea eta parkearen gainerakoa hartzen dituen. Beraz, bidezko da etena bukatutzat ematea eta, ondorioz, aipatu proposamenei behin betiko onarpena ematea.

Ondorioz, eta tramitatzerakoan hirigintzako legerian aurreikusitako jardunbidea segitu denez, Diputatuen Kontseiluak, aplikagarri den legeria ikusirik, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako foru diputatuaren proposamenez eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

Behin betiko onartzea 2005eko martxoan egindako Olaberriko Hiri Antolaketa Arauen Berrikuspena –Alde zaharreko eremuei dagokien dokumentu berridatza–.

Onarpen honen eraginez bukatutzat ematen da 2004ko azaroaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez ezarritako etena.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeke hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Eranskina: 2004ko azaroaren 30eko eta 2005eko maiatzaren 17ko Diputatuen Kontseiluaren behin betiko onarpen erabakiei egokitutako Hirigintza Arautegiaren testua.

Donostia, 2005eko abuztuaren 29a.—Segundo Díez Molinero, idazkari tekniko.

(6424)

(8466)

LEHENENGO ZATIA

ARAU SUBSIDIARIOEN APLIKAZIOARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Planeamenduko Arau Subsidiario hauek, behin indarrean jarritz gero, Olaberriko udalerrri osoan aplikatzeak izango dira.

El documento ahora presentado tiene como finalidad el cumplimiento de las condiciones expresadas en el referido acuerdo de suspensión y, tras su información pública, ha sido aprobado por el pleno municipal el 29 de marzo de 2005 con modificaciones derivadas de la estimación de la alegación presentada y de las deficiencias observadas, lo que ha dado lugar a la elaboración de un documento actualizado, redactado en marzo de 2005.

Analizado el contenido del documento es de señalar que la anterior Area 1 Herrigune de suelo urbano residencial se ha dividido en tres ámbitos: Area 1 Herrigune Zaharra, de suelo urbano, que incorpora la zona consolidada y las U.A.U.1.3, 1.5 y 1.7 y dos nuevos sectores de suelo urbanizable residencial que se denominan Area 44-Herrigune Berri con 33 nuevas viviendas, que incluye las anteriores U.A.U. 1.1, 1.2 y 1.6 y una parte del parque y Area 47-Iturtxo con 12 nuevas viviendas, formada por la U.A.U. 1.4 y el resto del parque, por lo que procede el levantamiento de la suspensión y con ello la aprobación definitiva de las propuestas que resultan del mismo.

En consecuencia, y habiéndose observado en cuanto a su tramitación las reglas procedimentales previstas en la normativa urbanística en vigor, este Consejo de Diputados, vista la legislación de aplicación, a propuesta del Diputado Foral para la Ordenación y Promoción Territorial y previa deliberación,

ACUERDA

Aprobar definitivamente la «Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Olaberria» –Documento reformulado correspondiente a los ámbitos del Casco–, redactado en marzo de 2005.

Esta aprobación conlleva el levantamiento de la suspensión decretada por este Consejo de Diputados en el acuerdo de 30 de noviembre de 2004.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Diputados en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Anexo: Texto de la normativa urbanística ajustada a los acuerdos de aprobación definitiva del Consejo de Diputados de 30 de noviembre de 2004 y 17 de mayo de 2005.

Donostia-San Sebastián, a 29 de agosto de 2005.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero.

(6424)

(8466)

PRIMERA PARTE

DISPOSICIONES DE CARACTER GENERAL REFERENTES A LA APLICACION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS

Artículo 1. Ambito de aplicación.

Las presentes Normas Subsidiarias de Planeamiento serán de aplicación, desde su entrada en vigor, en la totalidad del término municipal de Olaberria.

2. artikulua. Indarraldiaren baldintzak.

Arau hauek Olaberriko aurreko Planeamenduko Arau Subsidiarioen zehaztapenak ordezkatu eta indargabetzen dituzte, hain zuzen ere, 1987ko urriaren 2an behin betiko onartutakoak, baita ondorengo aldakuntzak, osagarriak edo garapenak ere, proiektu honek aldatzen dituenak, alegia.

Arau hauen zehaztapenetakoren baten baliogabetasun, deuseztapen edo aldakuntzak ez du gainontzekoen balioan eraginik izango, haietakoren bat elkarren arteko harreman edo mendekotasun inguruabarrak direla eta, aplikatzen ezina gertatzen denean salbu.

3. artikulua. Arau Subsidiarioak osatzen dituzten dokumentuak eta arauzko irismena.

1. Proiektu hau honako dokumentu hauek osatzen dute:

- A Dokumentua. Memoria.
- B Dokumentua. Hirigintza Arauak.
- C Dokumentua. Hirigintza Fitxak.
- D Dokumentua. Planoak.

2. Arau Subsidiarioen edukia beren dokumentu guztien zehaztapen multzoak osatzen du; hala ere, «B. Hirigintza Arauak» eta «D. Hirigintza Fitxak» dokumentuen zehaztapenak eta «D. Planoak» dokumentuaren Antolamendu Planoak dira bereziki hirigintza jardueraren arauzko izaera erregulatzailea dutenak dira. Gainontzeko dokumentuek izaera adierazle edo erreferentziazkoa dute.

3. Eskala desberdinetan egindako arauzko planoen arteko hirigintza zehaztapen jakin bati buruzko ezadostasuna izanez gero, eskala zabalenean egindako planoetan ezarritakoa nagusituko da, azken horietako edukiaren akats material nabarmena izan ezik.

4. artikulua. Arau Subsidiarioen zehaztapenen maila eta arauzko lotura.

1. Arau Subsidiario hauetan jasotako zehaztapenen aldakuntza beren maila eta arauzko loturak exijitzen duten prozedura tramiteen pean egongo da, beren izaera eta proiektu honetan horri buruz ezartzen den sistematizazioa kontuan hartuta.

2. Honako hauetan jasotako zehaztapenek izango dute planeamendu orokorrari dagozkion maila eta lotura:

- Arau Orokorrak eta area bakoitzeko Arau Partikularretako 1 eta 6 bitarteko atalak.
- D Planoak dokumentuaren Ordenamendu Planoak.

Zehaztapen horien aldakuntzak edo osatzeak, dokumentu honetan berariaz araututako tolerantzien arabekoak izan ezik, Arau Subsidiarioetako elementuen aldakuntzaren espediente bereziaren formulazio eta onespena beharko dute.

3. Gainontzeko zehaztapenek garapen planeamenduaren, Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren edota definitzeko gai den Hirigintza Espedienteari dagozkion maila eta izaera izango dituzte.

Legezko maila bereko dokumentu edo espediente bat formulatuz eta onartuz aldatu edo osatu ahal izango dira, kasuen arabera.

4. Eraikuntzen eta urbanizazioaren eraketa fisikoari buruzko zehaztapenen definizio berria, aldakuntza edo osatzea xehetasunezko azterlanak formulatuz egin ahal izango dira, indarrean dagoen hirigintza legerian zein Hirigintza Arau hauetan, eta, hala balegokio, garapen planeamenduan ezarritako mugen barruan.

Artículo 2. Condiciones de vigencia.

Las presentes Normas sustituyen y derogan las determinaciones de las precedentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Olaberria, definitivamente aprobadas con fecha 2 de octubre de 1987, así como las posteriores reformas, complementos o desarrollos de las mismas, modificados por el presente proyecto.

La nulidad, anulación o modificación de alguna de las determinaciones de las presentes Normas, no afectará a la validez de las restantes, salvo que alguna de ellas resulte inaplicable por circunstancias de interrelación o dependencia de aquéllas.

Artículo 3. Documentos constitutivos de las Normas Subsidiarias y alcance normativo.

1. El presente proyecto consta de los siguientes documentos:

- Documento A. Memoria.
- Documento B. Normas Urbanísticas.
- Documento C. Fichas Urbanísticas.
- Documento D. Planos.

2. El contenido de las Normas Subsidiarias está constituido por el conjunto de las determinaciones de la totalidad de sus documentos; no obstante, son las determinaciones de los documentos «B. Normas Urbanísticas», «D. Fichas urbanísticas» y los planos de Ordenación del documento «D. Planos», los que tienen de manera específica el carácter normativo y de regulación de la actividad urbanística, correspondiendo al resto de los documentos un carácter fundamentalmente indicativo o referencial.

3. En caso de divergencia respecto de una determinación urbanística concreta entre planos de carácter normativo realizados a diferentes escalas, prevalecerá la establecida en los planos de escala más amplia, salvo que responda a un error material manifiesto en el contenido de estos últimos.

Artículo 4. Rango y vinculación normativa de las determinaciones de las Normas Subsidiarias.

1. La modificación de las determinaciones contenidas en las presentes Normas Subsidiarias se sujetará a los trámites procedimentales que exijan el rango y la vinculación normativa de las mismas, derivadas de su propia naturaleza y de la sistematización que al respecto se establece en el presente proyecto.

2. Tendrán el rango y la vinculación propios de planeamiento general las determinaciones contenidas en:

- Las Normas Generales y los apartados 1 a 6 de las Normas Particulares de cada área.
- Los planos de Ordenación del documento D Planos.

La modificación o complemento de esas determinaciones, salvo aquéllas que se ajusten a las tolerancias expresamente reguladas en el presente documento, requerirá la formulación y aprobación, con ese fin, de un expediente específico de modificación de elementos de Normas Subsidiarias.

3. El resto de las determinaciones tendrán el rango y la naturaleza propios bien del planeamiento de desarrollo, Plan Especial o Plan Parcial, bien del expediente Urbanístico apto para su definición.

Su modificación o complementación podrá realizarse, en cada caso, mediante la formulación y aprobación de un documento o expediente del mismo rango legal.

4. La nueva definición, modificación o complementación de las determinaciones referentes a la configuración física de las edificaciones y de la urbanización, podrá realizarse mediante la formulación de estudios de detalle, dentro de los límites establecidos tanto en la vigente legislación urbanística, como en las presentes Normas Urbanísticas y, en su caso, en el planeamiento de desarrollo.

5. Esparru eta exekuzio unitateen mugatzea eta jardun sistemaren zehaztapena indarrean dagoen legerian ezarritako prozedura eta mekanismoen bitartez egin ahal izango dira, planeamenduan berariaz horren aurka ezarritako xedapena izan ezean. Kasu horretan, horren ondorioz ezartzen dena nagusituko da.

5. artikulua. *Arau Subsidiarioen Aldakuntzak.*

1. Aldakuntzen justifikazioa.

Aldakuntzek interes orokorreko arrazoietan oinarritu beharko dute, eta berariazko justifikazioa eskatuko da. Biztanleriari, enpleguari, ekipamendu komunitario orokor eta lokalari, gune askeei, bide eta aparkalekuei eta azpiegiturei dagozkien Arauen aurreikuspenen gain dituzten eraginak ebaluatuko dira, aldakuntzaren izaera edo garrantziak beharrezkotzat edo egokitzat jotzen duen guztietan.

Aldakuntza guztiak justifikatzen dituen arrazoiari lotuta egongo dira, eta ezin izango da arrazoi horri lotuta ez dauden edota egindako deskribapen eta justifikazioetan berariaz aipatzen ez diren planeamendu aldakuntzarik espedientean jasotzen.

2. Bolumen eraikigarriaren gehikuntza.

Egoitza guneetan ulertuko da Arau Subsidiarioen aldakuntzak aurreikusitako bolumen eraikigarria gehitzeko joera duela erabilera horretarako izendatutako eraikuntza aprobetxamendua gehitzen denean, planeamenduak berariaz baimendutako tolerantziak izan ezik. Dagokion gune askeen gehikuntza aurreikusi beharko da, aldakuntzak erasandako esparruan eta bere ingurunean, aldakuntzaren ondoriozko zuzkidurak indarrean dagoen legeriak ezarritako 18 m²/etx-ko estandarra betetzen ez duenean. Kalkulu hori ondorioztatzen den etxebizitza kopuru osoaren arabera egingo da; edonola ere, ondorioztatzen diren gune askeek aipatutako legerian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten esparruak eratuko dituzte.

Erasandako gune edo partzelaren erabilera alde batera utzita, gehikuntza hori gertatzen denean, aparkaleku edo gara-jeko gutxieneko zuzkidura gehigarri bat egokitu beharko da, Arau Subsidiario hauek zein dagokion garapen planeamenduak aipatutako gehikuntzak erasandako erabileretarako ezarritako zuzkidura exijentzien arabera; aipatutako zuzkidura gehigarriari, aparkalekuen %50 gutxienez bide publikoetan kokatuko dira.

3. Azalera gorabeherengatiko aldakuntzak.

Area, sektore, exekuzio unitate edo erasandako esparruaren %5 baino gutxiagoko guneetako mugen berregokitzea ematen den kasuetan, ez da Arau Subsidiarioen aldakuntzaren tramitazioa eskatuko, aldakuntza hori behar bezala justifikatuta gertatzen bada, behintzat.

6. artikulua. *Arau Subsidiarioak berrikusteko baldintzak.*

Udalak har litzakeen Arau Subsidiarioen berrikusketarako ekimenak alde batera utzita, honako kasu hauetan berrikusteari ekingo zaio:

— Olaberriko biztanleriak proiektu honetan jasotako hazkunde aurreikuspenak gainditzen baditu.

— Planifikatutako etxebizitza berrien %80rako eraikuntza lizentziak banatzen badira.

— Kalifikatutako industria lurzoru hutsaren %80ko okupazioa ematen bada.

5. La delimitación de ámbitos y unidades de ejecución y la determinación del sistema de actuación, podrá formularse o modificarse mediante los procedimientos y mecanismos establecidos en la legislación vigente, salvo disposición a contrario establecida expresamente en el planeamiento, en cuyo caso se estará a lo que resulte de éste.

Artículo 5. *Modificaciones de las Normas Subsidiarias.*

1. Justificación de las modificaciones.

Las modificaciones deberán fundamentarse en motivos de interés general, requiriendo una justificación expresa de las mismas, evaluándose sus efectos sobre las previsiones de las Normas relativas a población, empleo, equipamiento comunitario general y local, espacios libres, vialidad y aparcamiento, e infraestructuras, siempre que la entidad o alcance de la reforma lo haga necesario u oportuno.

Todas las modificaciones guardarán relación con el motivo que las justifica, sin que puedan incluirse en el expediente alteraciones del planeamiento no relacionadas con dicho motivo, o que no se mencionen de forma expresa en las descripciones y justificaciones realizadas.

2. Incremento del volumen edificable.

En las zonas residenciales se entenderá que la modificación de las Normas Subsidiarias tiende a incrementar el volumen edificable previsto cuando se aumente el aprovechamiento edificatorio asignado a ese uso, a excepción de las tolerancias expresamente autorizadas por el planeamiento. Deberá preverse el correspondiente incremento de los espacios libres cuando, en el ámbito afectado por la modificación y en sus inmediaciones, la dotación resultante de la modificación no cumplimente el estándar establecido por la legislación vigente de 18 m²/viv., efectuándose dicho cálculo en función del número total de viviendas resultante; los espacios libres resultantes configurarán en todo caso ámbitos que cumplieren los requisitos mínimos establecidos en la citada legislación.

Con independencia del uso de la zona o parcela afectada, cuando se produzca dicho incremento, se deberá disponer una dotación mínima adicional de aparcamiento o garaje, de acuerdo con las exigencias de dotación establecidas, bien por estas Normas Subsidiarias, bien por el correspondiente planeamiento de desarrollo, para los usos afectados por el citado incremento; de la citada dotación adicional, un mínimo del 50% de las plazas, se situará en vías públicas.

3. Modificaciones debidas a variaciones de superficies.

No se requerirá la tramitación de una modificación de las Normas Subsidiarias en aquellos casos en los que se produzca un reajuste de los límites de las áreas, sectores, unidades de ejecución o zonas de cuantía inferior al 5% del ámbito afectado, siempre que dicha variación quede debidamente justificada.

Artículo 6. *Condiciones para la revisión de las Normas Subsidiarias.*

Con independencia de las iniciativas de revisión de las Normas Subsidiarias que pudiera adoptar la Corporación Municipal, se procederá a la revisión de las mismas en los siguientes casos:

— Si la población de Olaberria superase las previsiones de crecimiento contenidas en este proyecto.

— Concesión de licencias de edificación para el 80% de las nuevas viviendas planificadas.

— Ocupación del 80% del suelo industrial vacante calificado.

BIGARREN ZATIA

LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

7. artikulua. *Hirigintza erabileren sistematizazio orokorra.*

1. Hirigintza erabileren oinarriko sistematizazioa. Sistematizazio horri begira, honako erabilera hauek bereizten dira:

- Egoitza erabilerak.
- Industria erabilerak.
- Hirugarren mailako erabilerak.
- Landa erabilerak.
- Komunikazioen erabilerak.
- Gune askeen erabilerak.
- Ekipamendu komunitarioaren erabilerak.
- Ibai ubideen erabilerak.
- Zerbitzu azpiegituren erabilerak.

2. Hirigintza erabileren ezaugarriak bereiztea, beren ezarpenaren arautzeari begira.

Beren ezarpenaren arautzeari dagokionez, beren egokiera edo egokierarik eza zehazteari begira, Hirigintza erabilerak honela definitu edo kategoria hauetan banatzen dira:

- Erraztutako erabilerak.
- Baimendutako erabilerak.
- Debekatutako erabilerak.

Erabilera orokorreko edo zehaztutako gune baten erraztutako erabilera, bertan nagusitzen den erabilera izan ohi da, eta ikuspegi funtzional eta bertan garatzen den eraikuntza tipologiaren eraketa ikuspegitik bere ezaugarri nagusia izan ohi da.

Era berean, erabilera jakin bati asimilatutako erabilerak ondorengo artikuluan hala identifikatzen diren beste horiek dira. Beren ezarpen baldintzak eta inguruan gauzatutako erabileren gain dituzten ondorioak erreferentziazko erabilerari dagokionen antzekoak dira. Beraz, antzeko baldintzatan ezarri ohi dira, esate baterako, etxebizitza baten titularraren bulego profesionala etxebizitzaren erabilerari dagokionez, edota, ekipamendu komunitarioaren erabilerak merkataritza erabilerei dagokienez.

Ildo berean erabilera lagungarriak aurrekoen zerbitzuan izanik, beren ezarpena erabilera nagusiarekin funtzionalki integratutako partzela berean ematen denean.

Aitzitik, erabilera batek autonomoaren kalifikazioa hartzen du modu independentean ezartzen denean. Horrela, erabilera orokorreko gune edo partzela jakin batean, erabilera bat beste batzuen lagungarritzat baimen daiteke, baina erabilera autonomotzat debekatu, esate baterako, etxebizitza erabilera ekipamendu guneetan.

Erabilera bat esparru jakin batean erraztutako edo onargarritzat jotzeak esparru horretan erraztutako edo bere lagungarritzat definitzen diren erabileren ezarpena implizituki baimentzea ekarriko du, partzela eraikigarri mota desberdinen erabilera erregimenaren arautzean, aurkakoa berariaz zehazten deneko erabilera lagungarriei dagokienez izan ezik.

Erabilera orokorreko gune desberdinez gain, eta, titulu honetako Kalifikazio Orokorrean aurkakoa berariaz adierazten denetan salbu, oinarriko zerbitzuen erabilerak deitutakoak onargarritzat joko dira, inguruabar hori berariaz adierazi beharrik izan gabe.

SEGUNDA PARTE

CALIFICACION DEL SUELO

Artículo 7. Sistematización general de los usos Urbanísticos.

1. Sistematización básica de los usos Urbanísticos. A efectos de su sistematización se diferencian los siguientes usos:

- Usos residenciales.
- Usos industriales.
- Usos terciarios.
- Usos rurales.
- Usos de comunicaciones.
- Usos de espacios libres.
- Usos de equipamiento comunitario.
- Usos de cauces fluviales.
- Usos de infraestructuras de servicios.

2. Caracterización de los usos Urbanísticos a los efectos de la regulación de su implantación.

En lo que respecta a la regulación de su implantación, a efectos de determinar su adecuación o inadecuación, los usos Urbanísticos se definen o categorizan como:

- Usos propiciados.
- Usos autorizados.
- Usos prohibidos.

Se denomina uso propiciado de una zona de uso global o de uso pormenorizado, al uso predominante en ella y que la caracteriza desde un punto de vista funcional y de configuración de la tipología edificatoria que en la misma se desarrolla.

De igual forma, se considerarán como usos asimilados a un uso determinado, aquellos otros que se identifican expresamente como tales en el Artículo siguiente, y cuyas condiciones de implantación y efectos sobre los usos ejercidos en el entorno sean semejantes a los del uso de referencia, por lo que habitualmente, se implantan en similares condiciones a las de aquel, tales como el despacho profesional del titular de una vivienda respecto del uso de vivienda, o los usos de equipamiento comunitario respecto de los usos comerciales.

En el mismo sentido, se entienden como usos auxiliares los de servicio a los anteriores, cuya implantación se produzca en la misma parcela, integrada funcionalmente con el uso principal.

Por el contrario un uso se califica como autónomo cuando se implanta de forma independiente. Así, en una zona de uso global o parcela determinada, un uso puede ser autorizado como auxiliar de otros, pero prohibido como uso autónomo, como por ejemplo el uso de vivienda en las zonas de equipamiento.

La consideración de un uso como propiciado o admisible en un ámbito determinado, supondrá la autorización implícita de la implantación en dicho ámbito de los usos que se definen como asimilados y auxiliares del mismo, con la salvedad de aquellos usos auxiliares en los que expresamente se especifica lo contrario en la regulación del régimen de uso de los diferentes tipos de parcelas edificables.

Además en las diferentes zonas de uso global, y, salvo que específicamente se señale lo contrario en la Calificación Global del presente título, se considerarán como admisibles, sin la necesidad del señalamiento expreso de esta circunstancia, los denominados usos de servicio básicos.

Hala kontsideratuko dira ondorengo artikuluan modu horretan zerrendatu eta definitzen diren zuzkidura eta azpiegitura erabilerak, jabari publikoaren erregimenean inolako salbuespenik gabe gauzatutakoak, hain zuzen.

Horien artean, honako hauek kontuan hartzen dira:

- Ibilgailu eta oinezkoentzako zirkulazioa.
- Aparkalekuak.
- Gune askeak.
- Ekipamendu komunitarioa.
- Zerbitzu azpiegiturak.

3. Baimendutako erabilerari aplika dakizkiekeen baldintzak.

Hirigintza erabilerari bat erraztu edo onargarri ezaugarria izateak ez du hainbat kasutan, hain zuzen ere, dagokion sektorez sektoreko legerian hala ezartzen denetan, beren ezarpena legezztatzen duen udal lizentzia eman aurretiko txosten edo baimenen tramitazio berezien exigentziarik alde batera uzten.

Ingurumenaren Legean zehaztutakoaren menpeko jarduerak, Arau hauetan ezarritako ezarpen baldintza orokorrez gain, aipatutako legearen eta gara dezaketen erregelamenduen eskakizunak bete beharko dituzte.

Aldez aurretik Udal Zerbitzu Teknikoen justifikatutako txostena eskutan, beren tamaina edo ezaugarri bereziak direla eta, indarrean dagoen planeamenduak ibilgailu eta oinezkoentzako sarbideei exijitu lekizkiekeen baldintzei, aparkalekuen zuzkidurari eta ezaugarriei, zama lanetarako gune osagarrien eraketari, edo ezarri nahi deneko esparrurako planeamenduak definitutako antolamendu baldintzekin argi eta garbi bateraezina diren beste batzuei dagokienez, zehaztutako antolamendu esparruan egoki konpondu ezin diren eta behar bereziak planteatzen dituzten instalazioen ezarpena galarazi ahal izango da, aipatutako planeamenduak generikoki bada ere berariaz baimendu dituzten arren.

Alternatiboki, hala balegokio, aipatutako gatazkak zuzentzeko, dagokion lizentzia ematean betebeharrak edo muga bereziak jarri ahal izango dira.

4. Aurreikusitako gabeko erabilerak.

Lehen aipatutako sistematizazioa zein ondorengo artikuluan berari buruz egiten den garapena definizio ireki eta ez baztertzailatzat ulertuko da. Beraz, Udalak bertan berariaz jasotzen ez diren erabilerak aipatutako beste erabileretik Hirigintza ondorioekiko analogiaz sailkatu ahal izango ditu.

Era berean eta antzeko irizpideari jarraiki, gune edo partzela jakin batean berariaz baimendu edo debekatu ez den erabilerari baten ezarpena baimendu edo debekatu ahal izango du.

8. artikulua. *Hirigintza Erabilerak.*

1. Egoitza erabilerak.

Funtsean egoitza erabilerak etxebizitza erabilerarekin identifikatzen dira, alegia, pertsona edo edozein motatako kolektiboan lojamendua erabilerarekin.

Etxebizitza erabileraren erabilerari lagungarritzat atariak, trastelekuak, instalazio gelak, esekitokiak, lorategi pribatuak eta beste antzekoak joko dira.

Era berean, egoitza erabileraren erabilerari lagungarritzat honako hauek joko dira, alegia, garaje edo ibilgailuen zaintza erabilerari, beren kategoria guztietan, kirol instalazioak eta etxebizitza eraikitzen besterena ez den erabilerako likidotutako

Tendrán esa consideración los usos dotacionales e infraestructurales, ejercidos salvo excepciones en régimen de dominio público, que se relacionan y definen como tales en el artículo siguiente.

Entre ellos se consideran los siguientes:

- Circulación rodada y peatonal.
- Aparcamiento.
- Espacios libres.
- Equipamiento comunitario.
- Infraestructuras de servicios.

3. Condiciones aplicables a los usos autorizados.

La caracterización de un uso Urbanístico como propiciado o admisible no excluye en determinados casos, en los que así se establece en la legislación sectorial correspondiente, la exigencia de tramitaciones específicas de informes o autorizaciones previas a la concesión de la licencia municipal que legalice su implantación.

Las actividades sujetas a lo determinado en la Ley de Medio Ambiente deberán cumplimentar, además de las condiciones generales de implantación establecidas en las presentes Normas, los requerimientos de la citada ley y reglamentos que la puedan desarrollar.

Previo informe justificado de los Servicios Técnicos Municipales, podrá impedirse la implantación de aquellas instalaciones que, por su magnitud o características funcionales, planteen necesidades singulares no resolubles adecuadamente en el marco de ordenación pormenorizada establecido por el planeamiento vigente, en cuanto a las condiciones exigibles a los accesos rodados y peatonales, a la dotación y características de los aparcamientos, a la disposición de espacios complementarios para carga y descarga, u otras que los hagan manifiestamente incompatibles con las condiciones de ordenación definidas por el planeamiento para el ámbito en el que se pretenda su implantación, aún cuando hayan sido autorizadas expresamente, si bien con carácter genérico, por el citado planeamiento.

Alternativamente, en su caso, podrán ser objeto de la imposición de obligaciones o limitaciones singulares respecto a la corrección de los conflictos señalados, en la correspondiente concesión de licencia.

4. Usos no previstos.

La sistematización reseñada anteriormente, así como el desarrollo que de la misma se efectúa en el artículo siguiente, se entenderá como una definición abierta y no excluyente, por lo que el Ayuntamiento podrá tipificar los usos no incluidos en ella de forma expresa por la analogía de sus efectos Urbanísticos con los de otros usos reseñados.

De igual forma y con similar criterio podrá autorizar o prohibir la implantación de un uso no autorizado ni prohibido de modo expreso en una zona o parcela determinadas.

Artículo 8. *Usos Urbanísticos.*

1. Usos Residenciales.

Se identifican básicamente los usos residenciales con el uso de vivienda, entendiéndose por tal el alojamiento de personas o colectivos de cualquier tipo.

Se considerarán como usos auxiliares del uso de vivienda los portales, trasteros, cuartos de instalaciones, tendaderos, jardines privados y otros similares.

Tendrán esa misma consideración de usos auxiliares de los residenciales: El uso de garaje, o guarda de vehículos, en todas sus categorías, las instalaciones deportivas y los depósitos de gases licuados de uso privativo de las construcciones de

gas biltokiak, kasu horietan, etxebizitza erabilerarako partzetako ezarpena planeamenduak espezifikoki arautu ahal izango badu ere.

Etxebizitza erabileraren asimilatutako erabileratzat honako hauek joko dira, alegia, 1. mailako industria erabilerak, pentsoiak, gehienez, 12 ohe izanik.

Familiakoak ez diren edozein motatako kolektiboen lojamendua, okupatutako lokal bakoitzeko 12 pertsona baino gehiago izanik, eta titularitate pribatuko erregimenean gauzuta, etxebizitza erabilerari asimilatutako erabileratzat joko da, betiere, asistentziatzko izaera ez izateaz gain, zahar egoitzak, unibertsitate egoitzak, ikastetxe nagusiak, aterpeak edo antzekoen modalitateetan hirugarren mailako erabileratzat jotzeko baldintzarik ez badu.

2. Industria erabilerak.

Honako jarduera hauek jasotzen dira bertan:

— Mota guztietako produktuen lorpen eta eraldaketa industriak.

— Produktuen artapen, zaintza eta banaketarako biltokiak, txikizkari, handizkari, instalatzaile, fabrikatzaile edo banatzaileei eskusiboki hornitzekoak, publiko orokorrari salmenta zuzena bazterturik.

— Mota guztietako ekoizpen eta ikerkuntza laborategiak, erabilitako produktuen kalte gabetasuna eta egindako jarduerak sortutako oztoporik eza osoa dela eta, bulegoen erabilerarekin asimila badaitezke izan ezik.

— Ibilgailu, makineria eta mota guztietako gailuak konponatzeko tailerrak.

— Zerbitzu estazioak, erregaiak hornitzeko eta ibilgailuak garbitzeko unitateak.

— Salmentarako mota guztietako erregai biltoki eta gordailuak.

— Errepide bidezko garraio agentziak eta kamioi, autobus eta bestelako ibilgailu edo makineria automobilak gordetzeko garajeak.

— Makineria, txatarra, ibilgailu edo materialen aire libreko biltoki eta gordailuak.

— Nekazaritza industriak, alegia, jarduera kokatzen den lurra zuzenean erabiltzen ez deneko nekazaritza ekoizpeneko jarduerak, baina, beren ezaugarri eta ezarpen baldintzak direla medio, derrigorrez Lurzoru Hiritarrezinean kokatu beharrekokoak.

— Horien artean, azaldutako baldintzen arabera nekazaritza eta abeltzaintza industriak kontuan hartuko dira, zerrategiak eta landare eta loreak ekoizteko eraikuntza finko eta egonkorreko haztegiak —zimendatzedun profil metalikoko egitura, kristaldun itxiera eta zolata—, bertan ekoizpena lurraren gain egiten ez bada eta harekiko harremanik ez badu.

— Mehatze industriak eta mota guztietako erauzketa industriak, edonola ere, Lurzoru Hiritarrezinean ezarri ahal izango direnak.

— Erabilitako, maneaututako edo saldutako materialak, edota erabilitako elementu teknikoak direla eta, pertsonen kalte, arrisku edo oztopoak edo ondasunetan kalteak sor ditzaketen produktuen fabrikazio edo eraldatze jarduerak.

— Industria erabilera nagusiaren erabilera lagungarriak, besteak beste, bulegoak, laborategiak eta kalkulu zentroak, zerbitzu instalazioak —ur ponpatze edo saneamendurako gordailu eta instalazioak, hondakinak iragazteko instalazioak—, garajeak eta ibilgailu eta makineria parkeak, eta beste antzeko

vivienda, si bien en estos casos su implantación en las parcelas destinadas al uso de vivienda podrá ser regulada de manera específica por el planeamiento.

Como asimilados al uso de vivienda se considerarán: Los usos industriales de 1.ª categoría, las pensiones, hasta un máximo de 12 camas.

El alojamiento de colectivos no familiares de cualquier tipo por encima de 12 personas por local ocupado, ejercido en régimen de titularidad privada, será considerado como uso asimilado al de vivienda, siempre que, además de no tener carácter asistencial, no reúna las condiciones para su consideración como usos terciarios en las modalidades de residencias de ancianos, residencias universitarias, colegios mayores, albergues o similares.

2. Usos Industriales.

Se consideran como tales las siguientes actividades:

— Las industrias de obtención y transformación de productos de todo tipo.

— Los almacenes destinados a la conservación, guarda, y distribución de productos, con suministro exclusivo a detallistas, mayoristas, instaladores, fabricantes o distribuidores, quedando excluida la venta directa al público en general.

— Los laboratorios de producción e investigación de todo tipo, salvo que por la inocuidad de los productos manipulados y la completa ausencia de molestias producidas por las actividades realizadas, resulten asimilables al uso de oficinas.

— Los talleres de reparación de vehículos, maquinaria y aparatos de todo tipo.

— Las estaciones de servicio, unidades de suministro de combustible y lavado de vehículos.

— Los depósitos y almacenes de combustibles de todo tipo, destinados a la venta.

— Las agencias de transporte por carretera, y, las cocheras destinadas a la guarda de camiones, autobuses y otros vehículos o maquinaria automovil.

— Los almacenes y depósitos al aire libre de maquinaria, chatarra, vehículos o materiales.

— Las industrias agrarias, entendiéndose por tales las actividades de producción agraria en las que no se utiliza de forma directa el terreno en el que la actividad se asienta, pero que, por sus características y condiciones de implantación, deben situarse necesariamente en Suelo No Urbanizable.

— Entre ellas se considerarán las industrias de producción agropecuaria que respondan a las condiciones expuestas, las serrerías y los viveros de producción de plantas y flores de construcción fija y estable, —estructura de perfiles metálica con cimentación, cierre acristalado y solera—, en los que la plantación no se produzca sobre el terreno, careciendo de relación con éste.

— Las industrias mineras y extractivas de todo tipo, que, en su caso, podrán implantarse en Suelo No Urbanizable.

— Las actividades de fabricación y transformación de productos que por los materiales utilizados, manipulados o despachados, o los elementos técnicos empleados, puedan ocasionar molestias, peligros o incomodidades a las personas, o daños a los bienes.

— Los usos auxiliares del uso industrial principal como las oficinas, laboratorios y centros de cálculo, las instalaciones de servicios, —depósitos e instalaciones de bombeo de agua o saneamiento, las instalaciones de depuración de residuos—, garajes y parques de vehículos y maquinaria, y otros similares, así como

batzuk, baita begirale edo zaindariaren etxebizitza ere. Hala ere, azken horren ezarpena planeamenduak berariaz baimendu beharko du.

Merkataritza edo oro har hirugarren mailako eginkizunak jasotzen dituzten industria jarduerak, industria erabilera ezauzgarriak dituzten lokal edo partzeletan ezartzeko, jarduera bakarizat joko dira, berariaz aipatutako erabileretarako diren azalaren kontsiderazio independentearen kaltetan gabe, aplikatutako erabileren araudiari begira.

Industria erabilerak kategoriatan sailkatzen dira, baimendutako bestelako erabileren gauzatzearekiko edota ingurumenarekiko sor dezaketen erosotasun eza, kaltegarritasuna, osasun eza edo arriskugarritasuna kontuan hartuta:

— 1. Kategoría.

Banaka edo familiako izaerako ekoizpen jarduerak jasotzen ditu, instalatutako potentzia mekaniko finkorik gabekoak, inolako kalte edo arriskugarritasunik gabeak, eta, beraz, Ingurumenaren Legearen zehaztapenei lotuta ez daudenak.

Jarduera gauzatzean erabilitako azalera, kasu guztietan, 125 m² baino gutxiagokoa izango da. Etxebizitza, hirugarren mailako eta ekipamendu komunitarioko erabileretik asimilatutakotzat joko dira, eta nagusiki erabilera horietarako diren lokal eta partzelatan ezarri ahal izango dira.

— 2. Kategoría.

Egoitza erabilerekin, hirugarren mailakoekin edota ekipamendu komunitariokoekin bateragarriak diren industria jarduerak jasotzen ditu, arriskugarritasunik ez baitute (Ingurumenaren Legearen arabera), ondoko erabileretarako oztopo edo erosotasun eza sortzen ez baitute (usainak, gasak, hautsa edota dardarizkoak sortuz, edo salbuesitako jarduerak baitira, dagozkion neurri zuzentzaileak hartuz, eta 4 CV baino gutxiagoko unitate potentziadun makina edo motoreak erabiliz, eta 250 m² baino gutxiagoko azalerako okupazioarekin.

Kategoría honetan motozikleta eta automobilen konponketa tailerrak sartzen dira —inola ere, txapa eta pintura, ibilgailu astun edo makineria automobila konpontzekoak— 250 m² baino gutxiagorekin.

Ibilgailuak konpontzeko tailerren barruan konponketa azkarreko tailerren modalitatea bereizten da, hain zuzen ere, erabilitako 100 m² baino gutxiago duten tailerrek osatutako eta gehiezin ere bi langile dituztenak. Horietarako, hainbat egoeratan, araudi bereziak ezartzen dira.

2. kategoriako industria erabilerak merkataritza erabileretik asimilatutatzat joko dira eta nagusiki horretarako diren partzela eta lokaletan ezarri ahal izango dira.

— 3. Kategoría.

Tamaina txiki edo ertaineko industria jarduerak jasotzen ditu —3.600 m² baino gutxiagoko eraikuntzak okupa dezakeen partzela azalera eta 5.000 m² baino gutxiagoko eraikitako sabai azalera—, eta ezin dira 1. edo 2. kategorikotzat jo exijitutako baldintzetakoren bat betetzen ez dutelako, edo, oro har, eta neurri zuzentzaileak hartuta ere, etxebizitzari edo hirugarren mailako edo ekipamendu komunitarioko erabileradun lokalei kalteak sor diezazkiekeelako, eraikuntza berean edo ondoan kokatuz gero.

Zehazki, kategoría honetan aire libreko biltoki eta gordailuak sartuko dira, txapa eta pintura tailerrak, ibilgailu arinen edo makineria automobilaren konponketa tailerrak, zerbitzu estazioak, erregaia hornitzeko unitateak eta aire librean automobilak garbitzeko instalazioak; azken horiek, garaje edo 2. mailako konponketa tailerretako erabilera lagungarrien izaera

la vivienda del guarda o vigilante, cuya implantación, sin embargo, deberá ser autorizada de forma expresa por el «planeamiento».

Las actividades industriales que incluyan funciones de carácter comercial o terciario en general, se considerarán, a los efectos de su implantación en los locales o parcelas de uso característico industrial, como una actividad única, sin perjuicio de la consideración independiente de las superficies destinadas de forma específica a los usos citados, a los efectos de la regulación aplicable a los mismos.

Los usos industriales se clasifican en categorías, atendiendo a las incomodidades, nocividad, insalubridad o peligrosidad que puedan originar respecto al ejercicio de otros usos autorizados o respecto al medio ambiente en general:

— Categoría 1.^a

Comprende las actividades productivas de carácter individual o familiar, sin potencia mecánica fija instalada, carentes por completo de molestias y peligrosidad y por tanto no sujetas a las determinaciones de la Ley de Medio Ambiente.

La superficie utilizada en el ejercicio de la actividad, será, en todos los casos, inferior a 125 m². Se considerarán asimilados a los usos de vivienda, terciarios y de equipamiento comunitario, pudiendo implantarse en los locales y parcelas destinados de forma predominante a estos usos.

— Categoría 2.^a

Comprende las actividades industriales consideradas como compatibles con los usos residenciales, terciarios o de equipamiento comunitario, por carecer de peligrosidad, (según la Ley de Medio Ambiente) no generar molestias o incomodidad incorregibles para los usos colindantes —producción de olores, gases, polvo, ruido, vibraciones—, o tratarse de actividades exentas, mediante la adopción de las correspondientes medidas correctoras, y utilizar máquinas o motores de potencia unitaria no superior a 4 CV., disponiendo de una potencia instalada no superior a 0.135 CV/m², y con una ocupación en superficie inferior a 250 m².

Se considerarán incluidos en esta categoría los talleres de reparación de motocicletas, automóviles —en ningún caso los de reparación de chapa y pintura, vehículos pesados, o maquinaria automóvil—, con menos de 250 m².

Dentro de los talleres de reparación de vehículos se distingue la modalidad de talleres de reparación rápida, constituida por aquellos talleres con menos de 100 m² de superficie utilizada y hasta dos operarios, para los que, en determinadas situaciones se establecen regulaciones específicas.

Los usos industriales de 2.^a categoría se considerarán asimilados a los usos comerciales, pudiendo implantarse en las parcelas y locales destinados de forma predominante a ellos.

— Categoría 3.^a

Comprende las actividades industriales de tamaño pequeño o medio —superficie de parcela ocupable por la edificación inferior a 3.600 m² y superficie de techo edificada inferior a 5.000 m²—, que no puedan ser consideradas de categoría 1.^a y 2.^a por incumplir alguno de los requisitos exigidos, o que, en general, y aún con la adopción de medidas correctoras, puedan ocasionar molestias a las viviendas o a los locales de usos terciarios o de equipamiento comunitario si se sitúan en una misma edificación o contiguas a ellos.

En concreto, se incluirán en esta categoría, los almacenes y depósitos al aire libre, los talleres de chapa y pintura, los de reparación de vehículos pesados o maquinaria automóvil, las estaciones de servicio, las unidades de suministro de combustible, y las instalaciones de lavado de coches al aire libre; estas últimas, cuando tengan el carácter de usos auxiliares de garajes,

dutenean, eta erabilera horietarako lokalen barruan daudenean, 2. mailako industria erabileratzat jo ahal izango dira.

3. mailako industria erabilerak, berariaz adierazten diren kasuetan izan ezik, industria erabilerako guneetan soilik ezarriko dira.

Ezarritako baldintza bereziak betetzen dituzten nekazaritza industriak baimentzen diren landa guneetan instalatu ahal izango dira.

Bestalde, zerbitzu estazioen —automobilak garbitzeko instalazioak horiei asimilatutako erabileratzat joko dira— eta erregaia hornitzeko unitateen aldagaietan, hala ere, Lurzoru Hirita-rrezintzat sailkatu eta bide sistema orokortzat kalifikatutako lurretan, edo horien mugakide direnetan ezarri ahal izango dira, gizarte intereseko elementuen ezaugarriak baitituzte.

— 4. Katgoria.

Tamaina ertain eta handiko industria jarduerak jasotzen ditu —3.600 m² baino gehiagoko edo 5.000 m² baino gehiagoko eraikitako sabaidun eraikuntzak okupa dezakeen partzela azalera—, baita tamaina hori lortu gabe ere, beste industria batzuekin zuzenean elkarren ondoan egotearekin bateraezina direnak ere, gune askeen erabilera komunean gatazkak sortzeagatik, edota, neurri zuzentzaileak hartuta ere, sortutako kaltegarritasun, osasun gabetasun edota oztopoengatik.

Kategoria honetan 3. mailako industrietarako ezarritako okupa daitekeen partzelaren azalaren eta sabai azalaren mugak gainditzen ez badituzte ere, mugakide dituzten guneen gain maniobra, zama lan, biltegitze edo aparkatze jarduera lagungarrien bolumen garrantzitsua eragiten duten ekoizpen jarduerak sartzen dira, gune horien erabilera beste hainbat jarduerarekin bateraezina bihurtuz.

Horien artean, edonola ere, eta, beren ezaugarriak direla eta, 5. kategoriako industrietatzat jo behar direnak salbu —nekazaritza eta abeltzaintza industriak eta antzeko beste batzuk— 2.000 m²(t) baino gehiagoko nekazaritza industriak jasoko dira.

Kategoria honetan jasotako industriak industria erabilerako guneetan soilik ezarriko dira, eta, nekazaritza industriei dagokienez, baimentzen diren landa guneetan, erabilera horretarako bereziki zuzendutako partzeletan. Esparru horretan, jarduera berariaz garatu beharko da, aire libreko biltegitzeak, zama lanak, maniobra, aparkatzea eta beste antzeko erabilera batzuk bezalako beharrezko erabilera lagungarriak barne, ezarritako baldintzatan.

Horrelako industrien erabilera lagungarritzat, instalazioaren zaindariaren etxebizitza jo ahal izango da, partzela bakoitzeko etxebizitza bat gehienez, eta dagokion Hirigintza Arau Partikularrean edo zehaztutako planeamenduan berariazko baimena beharko da.

— 5. Katgoria.

Behar den ekoizpen esparruaren zabalera dela eta (20.000 m² baino gehiagoko partzela azalera), edo bere izaera arriskutsua, osasungaitza edo kaltegarria dela eta, kokaleku berezietan bakarrik onar daitezkeen jarduerak jasotzen ditu.

Beren ezarpena industria gune berezietan egingo da, eta, nekazaritza industriei dagokienez, baimentzen diren landa guneetan.

Ezarpena 4. kategoriako industrietarako ezarritako baldintzatan egingo da, edonola ere, behar diren neurri zuzentzaileak hartuz.

o talleres de reparación de 2.^a categoría, y se dispongan en el interior de los locales destinados a estos usos, podrán considerarse como usos industriales de 2.^a categoría.

Los usos industriales de categoría 3.^a se implantarán, salvo en los casos que expresamente se señalan, exclusivamente en zonas de uso industrial.

Las industrias agrarias que cumplieren las condiciones específicas establecidas podrán instalarse en las zonas rurales en las que se autoricen las mismas.

En sus variantes de estaciones de servicio —las instalaciones de lavado de coches se considerarán como usos asimilados a ellas— y unidades de suministro de combustible, podrán sin embargo implantarse, además, en terrenos clasificados como Suelo No Urbanizable, calificados como sistema general viario, o colindantes con éstos, caracterizados por ser elementos de interés social.

